

## Etxebizitza alokairu soziala

Ikuspegi eta esperientzia arrakastatsuak



2008ko azaroak 13-14  
Bilboko Arte Eder Museoa

Etxebizitza sozialak “gizartean egoera kaskarrean dauden kolektiboek bizitzeko dituzten baldintzak hobetzeko eskaintzen diren soluzioak” direla dio alor honetan hedatu den definizioa.


Argitaratu den azken Euskobarometroaren arabera (2008ko maiatzekoa), etxebizitza da EAEko biztanleek dituzten kezken artean hirugarrena (%17entzat kezka nagusia da eta %41entzan hiru kezka garrantzitsuenen arteko bat). Kezka horrek etxebizitza prezioak azken hamarkadan izandako gorakada nabarmena islatzen du, interes-tasek azken aldiaren izandako igoerarekin batera. Egoera horren ondorioz, herritar askorentzat oso zaila da etxebizitza duina eskuratzea.

Etxebizitzaren inguruko 2006-2009rako Plan Zuzentzaileak helburu garrantzitsuak finkatu ditu: etxebizitza babestuen eskaintza handitzea, alokairuko etxebizitza babestuak merkaturatzeko apustua indartzea, eskaintzen diren etxebizitza hutsen kopurua handitzea, etxebizitzaren zaharberitzea bultzatzea, arkitektura bioklimatikoa eta efizientzia energetikoa sustatzea eta etxebizitza babestuetan dagoen iruzurrari aurre egitea. Helburu horiek lortzeko elkarlan eraginkorra behar da foru- eta ud-administrazioekin, sektore pribatuarekin, finantza-erakundeekin eta herritar guztiekin. Gure helburuak zenbakitan adierazita, 2009rako alokairu sozialeko 20.000 inguru etxebizitza eskaini nahi ditugu.

Era berean, lehenbiziko etxebizitza bila dabilzanen artean alokairua gero eta gehiago onartzen dela ikusten ari gara azken aldiaren. %70ek alokairua aintzat hartzen dute etxebizitza izateko dauden aukeren artean, eta %98ek diotenez, alokairuko etxebizitza babestu bat onartuko lukete, halakorik egokitzuz gero. Dagoeneko %5eko kopurua gainditu du alokairuak etxebizitza-eskaintza osoan, baina oraindik oso urritu gaude Suedia, Alemania eta antzeko herrialdeetatik.

Gaur egun asko hedatzen ari da alokairua, oro har, eta alokairu soziala, bereziki, eta, hortaz, Europako eta Estatuak beste ingurune batzuetan dauden esperientzia

arrakastatsuak aztertzea komeni dela iruditzen zaigu, EAeko herritar guztiek beren beharrei erantzuten dien etxebizitza bat eskuratzeko helburua betetzen lagunduko diguten alor askotako -arau eta legeak, finantzak, herritarren parte-hartzea eta kudeaketa- jardunbide egokiak ezagutzeko. Jardunaldi hauek helburu horiek lortzeko bidean aurrera egiten laguntzea nahi dugu, azken batean.



Ondorioak

[Ondorio dokumentuaren sarrera \(pdf, 1297kb\)](#)